


EZAGUTZEN DUZU EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA?



Pertsona eta proiektu
ekintzaileentzako
dibulgazio-saioak



urt-api
2022 **BILBO**

presstatzen.reaseuskadi.eus

Bilbao EKONOPOLO



REAS
EUSKADI

“Ezagutzen duzu ekonomia sozial eta solidarioa?” dibulgazio-saioak EKONOPOLO proiektuaren barruan kokatzen dira

EKONOPOLOa, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa, Bilbao Ekintzak eta REAS Euskadik elkarrekin kudeatutako proiektua da, Bilboko San Frantzisko auzoan kokatua. ESSaren inguruan lan egiten duten hainbat eragilek topo egiteko eta esperientziak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko erreferentzia-espazio bihurtu nahi du, aldi berean, ESSaren beraren bozgorailu izanez.

Antolatzaileak



Partaideak



**Ekiten ari zara eta zure
proiektuari ikuspegi
sozialetik buelta bat
ematea gustatuko
litzaizuke?**

**Ekonomia Sozial eta
Solidarioa ezagutzea
eta zure erakundea
nola alda daitekeen
hausnartzea gustatuko
litzaizuke?**



SAIO DIBULGATIBOAK

18
URTARRILA

ESS-AN EKITEN

Ekonomia Solidarioaren marko teorikoa aurkeztuko da, baita bere printzipioak ere. Bestalde, ekonomia sozial eta solidarioan ekiteko berezitasunak, abantailak eta modalitateak aurkeztuko dira.

25
URTARRILA

LURRALDE-ERROTZEA ETA TOKIKO AUKERAK

Ekintzailatza tokiko garapenaren ikuspegitik landuko da. Bilbao Ekintzako eragileak izango dira bertan, Bilboren inguruan dauden aukerak testuinguruan kokatzen laguntzeko.

1
OTSAILA

NEGOZIO-EREDUA EGOKITUZ: CANVAS SOZIALA ETA GJHAK SARTZEA

Canvas Soziala tresna ezagutzera emango da eta kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak nabarmenduko dira. Honez gain, GJHak eta hauek negozio-ereduaren barruan nola sartu aurkeztuko da.

8
OTSAILA

ERAKUNDE BIZIGARRIAK: IKUSPEGI EZ-PATRIARKALETATIK ERAIKITAKO ERAKUNDE EREDUAK

"Erakunde Bizigarria" kontzeptua eta haren berezitasunak azalduko dira. Halaber, proiektuetan ikuspegi feminista zeharka txertatzeko hainbat tresna aurkeztuko dira.

22
OTSAILA

ANIZTASUNETIK EKITEN

LGTBIQ+ dimentsioa erakundeetan nola sartu aztertuko da.

1
MARTXOA

IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA ETA ESS-AREN FINANTZAKETA-BIDEAK

ESSko erakundeen berezitasun ekonomikoak azalduko dira, eta ezaugarri horiek kontuan hartuko dituen ekonomia- eta finantza-plan bat garatzeko tresnak emango dira.

8
MARTXOA

GATAZKAREN KUDEAKETA PROIEKTU KOLEKTIBOETAN

Proiektu kolektiboen barruko gatazka ohikoena azalduko dira, eta hauek kudeatzeko hainbat tresna aurkeztuko dira.

15
MARTXOA

MERKATU ALTERNATIBO BAT ETA ZIURTAGIRI BAT ESSARENTZAT: MERKATU SOZIALA ETA AUDITORIA SOZIALA

Merkatu Soziala eta Auditoria Soziala zer diren azalduko da, bi tresna ESSko erakundeak ikusarazteko eta haien balioa nabarmentzeko.

22
MARTXOA

TRAJE JURIDIKOA: ESSKO ERAKUNDE BAT ERATZEKO MODELO ETA TRAMITEAK

ESSaren esparruan dauden eredu juridikoak aurkeztuko dira, baita hauen berezitasun zein abantailak ere.



Asteartea 10:00etatik 11:30etara.




Prestakuntza EKONOPOLOKO gunean egingo da, Harrobi plaza 4, 48003 Bilbon, osasun-baldintza guztiak betez. Murrizketak aldatuz gero, saioak birtualizatu ahal izango dira.



Saioak gaztelaniaz egingo dira, ekarpenak euskaraz egiteko aukerarekin.





IZEN-EMATEA

Saio batean edo gehiagotan parte hartu nahi baduzu, sartu presstatzen.reaseuskadi.eus webgunean.

Zerbait kontsultatu nahi badiguzu, idatzi presstatzen@reaseuskadi.net helbidera.

